



PROGRAMAREN GAINEKO OHARRAK

Euskal Kanta Bilduma Luis Urteagak txistu bandarako idatzitako rapsodia bat da. Musika Bandarentzako moldaketa Angel Briz-ek egin zuen. Txistu erreperorioan oso ohikoak diren erritmo eta abesti batzutat gozatzeko aukera emeten digu: minuetoa, biribilketak, arin arina, habanera e.a. Obraren sarreran Urrundik abesti ezaguna planteatzen zaigu.

Txistu eta Bandarako Rapsodia Eduardo Morenok eginitako lana da. Bertan, nostalgia, poza, erritmoa eta ausnarketak batzen dira ezohiko modu batean landuak. Musika deskriptibora edo pelikula bateko soinu banda estilora gerturatzen da. Horrexegatik, agian, desberdintzen da ohituak gaudenetik.

Irribarrea Xabier Zabalen balada baikor bat da. Irrifar batekin eta modu nostalgiko batean gozatzeko. Bakoitzak bere modura goza dezan. Mibeko txistua erabiltzen da gozotazun hau adierazteko. Sarrera sinfoniko baten ondoren $\frac{3}{4}$ erritmoan txistuak melodía bat garatzen du bandarekin modu naturalean uztertzen dena. Egilearen esanetan "irrifar batek segundo bat iraun dezake baina bere oroitzapenak bizi guztirako".

Idiarena bariazioekin: Eduardo Gorosarik idatzitako maixu lana da. Bera Txistulari Elkarteko lehen presidentes izan zen, apaiza eta XX mende hasera lan handia egin zuena txistuaren egitura handitzeko. Lan hau ezaguna egiten zaigun Idiarena doinuak eta bere bariazio edo aldaketak osatzen dute. Zati melodiko bakoitzaren ondoren bi bariazio planteatzen dizkigu. Exijentea txistulariarentzako eta ederra entzulearentzako.

Variaciones de un tiempo pasado araba-errioxako Eduardo Morenoren obra bat da. Finean, doinu eta bariazioek osatzen dute baina tartean baditu zati dantzagarriak ere. Sarrera modu nostalgiko batean hasten da eta itxaropenean aldatzen dena aurrera joan ahala. Melodia ibiltaria denbora eta erritmoan aldatzen doa musika aurrera dijoan einean.



KONTZERTUA



Garikoitz Mendizabal,

Azkoitiko Musika Banda eta
Txalkor Txistulari Taldearen laguntzarekin



Urriak

4

larunbata

12:15

Kontzejupean



AZKOITIA
Udala

"Berezko estiloa increscendo"

GARIKOITZ MENDIZABAL

[Zestoa, 1973]

Gaur egun, txistularien artean erreferenteetako bat. Bakarleri modura Euskal Herriko Txistularien Lehiaketako lehen saria eskuratu zuen 1994 eta 1996an, eta bigarren saria lortu 2002an. 2002an Erretereriako Txistulari Banden Lehiaketako lehen saria eskuratu zuen Gasteizko Txistularien Udal Bandarekin.

Gasteizko Txistularien Udal Bandako zuzendaria izan da 1997tik 2002ra. 2003an Donostiako Udalaren Txistulari Taldeko kide izan zen eta 2004ko urtarriletik Bilbaoko Udal Txistulari Banda zuzentzen du.

Prestigio handiko talde eta orkestrarekin aritu izan da bakarleri moduan. Hauen artean, Euskadiko Orkestra, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Nafarroako, Orkestra Sinfonikoa, Madrilgo Komunitateko Orkestra Sinfonikoa, The Bratislava Symphony Orchestra, Bartzelonako Lizeo Antzokiko Orkestra, San Petersburg State Symphony Orchestra, Hego Korean Chun Cheon Philharmonic Orchestra, Gyonbook Philharmonic Orchestra, Zagreb Orkestra Sinfonikoa, Seongnam Philharmonic Orchestra, Philips Symphony Orchestra, Quebec-eko Orkestra Filarmonikoa eta Libanoko Orkestra Filarmonikoa. Areto garrantzitsuetan aritu izan da, hala nola, Bilboko Euskalduna Jauregia, Baluarte, Donostiako Kursaal, Auditorio Nazionala, Teatro Real, Teatro Monumentala, Liceu Teatroa, e.a.

2012an Zestoako musika historiaren konpasean liburua argitaratu zuen.

Argitaratu dituen 19 diskatan estilo eta erregistro ugari eskeintzen ditu:

musika klasikoa, tradizionala, aintzinako musika zeltiarra eta jazz-a.

Musikari ugarirentzako egiten ditu kolaborazioak; Kepa Junkera, Carlos Nuñez, Gorka Hermosa, Gozategi, Korrontzi, Xabier Zabala, Aitor Furundarena, Xabi Aburrizaga, besteak beste. KHAMI (jazz musika eta musika tradizionala uztartzen dituen), Alberto Urrechoren Soinuaren Bidaia proiektuan eta German Ormazabalekin "Metamorfosia" diskarekin ari da.

2012 an Bratislava Symphony Orkestrarekin TXISTU SYMPHONIC argitaratu ondoren, 2021ean Euskadiko Orkestrarekin GUTIZIA CD bikoitza argitaratu zuen. Bertan Txistua eta Orkestrarako lan berriak biltzen zirelarik.

2023an Gorka Hermosarekin batera Sustraien Matxinada lana aurkeztu zuen. Carles Benavent eta Tino di Geraldo bezalako musikariek egin dako lan berezia.

2025ean Josu Okiñena pianojolearekin Iragana betikotzen lana kaleratu du. Pianoa eta txistuaren erreperitorio zaharra grabatuaz eta proposamen berriak ere erakusten.

Euskal Herriko Txistularien Elkarteko presidentea izan da 2003tik 2010ra bitartean.

2004tik 2022 arte Bilboko Udal Txistulari Bandako zuzendaria izan da. Gaur egun lan-utzialdian dago eta Legebiltzarkidea da EAJ/PNV alderditik eta bakarleri ibilbidearekin uztartzen du. Euskalherriko Adiskideen Elkarteko kidea da.

www.garikoitzmendizabal.com

PROGRAMA

Azkoitiko Musika Banda & Garikoitz Mendizabal

- Euskal Kanta Bilduma.....Luis Urteaga
. Mold: Emmanuel Martin
. Bandarako egokitzea: Ángel Briz
- Txistu eta Bandarako Rapsodia.....Eduardo Moreno
- Irribarrea.....Xabier Zabala
- Idiarena bariazioekin.....Eduardo Gorosarri
. Mold: Joxe Mari Altuna
- Variaciones de un tiempo pasado.....Eduardo Moreno
- Homenaje a Laskurain..... Txistu eta Bandarako obrak
. Mold: Antonino Ibarrondo
. Txalkor Txistulari taldearekin
. Zuz: Pello Larrañaga
- Angel Mari Arenas (Biribilketa)*.....Txomin Mujika
. Txalkor Txistulari taldearekin
. Zuz: Pello Larrañaga
- *Estreinaldia

Zuzendaria: Carlos Muñoz

Parte hartzaileak:

Azkoitiko Musika Banda

Garikoitz Mendizabal

Txalkor Txistulari taldea